

## Gotzaina aukeratzen (II)

*La enorme variedad de matices con que en la Antigüedad y la Edad Media se fueron eligiendo los obispos dio paso en la época moderna y contemporánea a las vías concordatarias negociadas entre las Coronas y los Gobiernos por una parte (Francia, España) y la Sta. Sede, por otra. Los Concordatos crearon un estatus religioso-político duradero, dentro de una concepción absolutista coherente de la Corona.*

Erdi Aro aldartetsu baten ondoren, Gotzainak aukeratzeko prozedurak Erreinu batzuetan modu negoziatu eta finkatu batean ezarririk geratu ziren, Konkordatuaren bidez, hau da, Erromaren eta Erreinuaren arteko negoziazioetan. Oro har, lehenago halako eskua zuten herritar sinestunak, apaizeriak, Katedraletako Kabildoak nahiz tokian tokiko agintariak izan ziren aldakuntza honetako galtzaileak. Goreneko agintariak gertatu ziren hautatzaile irabazleak, beheragokoen kaltetan.

### **Aro Modernoko joera politikoak**

Aita Santuen eta Alemaniako Enperadoreen arteko harremanak oro har Worms-eko Konkordatuak arautu zituen (1122): handik aurrera, Katedraletako Kabildoek izan behar zuten hautatzaileak, betiere aukeratuak eliz zereginak betetzeko eskumena bera Elizagan-dik jasota, eta gainerako botere sekularrak Enperadore-agandik jasotzen zituela. Hori zen araua, baina ondoko praktikak tranparik franko izan zuten, botere zibilaren mesedetan.

Enperadorearekikoa bideratu edo egin zenean, Erreinu Nazionalak (Ingalaterra, Frantzia, Espainia edo Portugal) Erromako Egoitza Santuarekiko harremani izaera berritu bat eman beharrean aurkitu ziren. Horretarako arrazoiak ez ziren falta: Portugal izan zen, bere

lurralde-batasuna lortu eta itsasoetan barrena joanda, kristautu beharreko herriak omen zirenak ezagutzen (Afrikan, Asian). Gaztelako Erreina ez zen atzera geratu, eta Penintsulan Granadako Erreinu moroaz jabetuta (1492), Kanaria eta Ameriketarako bideak urratu zituen.

Herri berriekin topo egitean, garaiko pentasolde eta handinahietan, munduaren ebanjelizatzea nork ahalbideratu, nola egin eta noren ardurapean joango zen erabaki beharra zegoen. European bertan ere, Erregeen agintea gero eta absolutuago bilakatzen ari zen mendeak ziren haiek (XVI-XVIII. mendeak).

Bien bitartean, Erreforma protestanteak ere bidea egin zuen. Ingalaterran Enrike VIII.ak bere eskuetara ekarriko zuen Eliza Anglikanoaren gaineko agintea (1532), eta gainerako Europa protestantean beste hainbeste gertatu zen (1555, 1648).

Gaztela eta Frantziaren goraldirik ederrenean etenik gabe heldu nahi zitzaion Koroa eta Erromaren arteko botere-banaketa birmoldatzeari. Penintsula Iberiarrean, Errege Katolikoekin hasita (1474-1598), lehen epealdi batean mende eta laurdeneko zeregin politikoa izan zen hori, hurrengo pausoak Karlos V.a eta Felipe II. arekin bizkorrago ematen zirela. Biga-